

EUSKAL ANTZERKIA ZER DA?



**Luku Hargindegi, Antton
Idazlea**

1. ANTZERKI ERRATEN DUGUNEAN, ZER SARTZEN DUGU IZENDAPEN HORREN BARNERA?

Galdera bitxia agertuko zaio bati baino gehiagori. Erantzun motza egiten zaio ia beti: euskaraz egiten den antzerkia da erradikalentzat (hau ere ez zait argi ateratzen zer den), edo izpiritu zabalentzat, Euskal Herrian egiten dena. Antzerki hitza zait ordea ilun. Neologismo horrek zer izendatzen duen edo, hobeki errateko, zer antz, irudi edo erakuste forma sar daitekeen antzerki nozioan. Antz edo egite hitzek imitazio edo eskarnia gogora ekartzen dute. Errealitatearen imitazioa edo trufa sar daiteke bakarrik antzerkian? Ez da nehon ere argi. Hemen edo han irakurtzen dugu talde batek dantza eta soinua nahasten dituen antzerkia egin duela. Ez dira, beraz, horiek antzerki?

Lur argialetxeak Kaniko eta Beltxitina Zuberoako inauteri pieza publikatu zuelarik, aitziñolas sutsua egin zion Arestik berak, gure herri antzerkiak jasan zuen tratamendu iraingarri eta baztertzailiaz. Ricard Salvat zuzendari katalana zitaten du, hark diola ez duela ulertzen nola euskaldunek tradizio para-teatral inbidiagarria ukanik ez duten lehen planoko antzerki garaikiderik sortu. Arestik euskal letratu edo euskaltzainek herri kulturari egiten dioten arbuioari egotzen dio falta. Hemengo solaseko para-teatrala nozioa zaigu interesgarri: pastoralara eta bertsolaritza ez zaizkie gizon handiei antzerki, baina para-antzerki.

Pastoralari dagokionez, baita horrekin doazen forma zaharrei ere, begi bistakoa da euskal literaturaren herritartzeaz arduratzen diren testuetan herri antzerki nozioa sortua dela garaikidearekin nahastera ez uzteko. Autore guziek ez dute hori antzerki ikusten arras, baina aurre antzerki bat edo ondarean leku aproposagoa lukeen zerbait. Ondare aberats eta inbidiagarria, jakina. Antzerkia beste zerbait da, garaikideago edo kultuago, munttoago gutxienez. Iparraldean ere pastoralera urtean behin joanez, ikastolan diren haurrei erakutsiz kitatzen da jatorriarekin dagoen zorra. Folklore elementuei

mugatzen zaie horretaz dugun jakintza. Turkoen harrokeria, ardien sartzea... Maskaradan dantza da ederrena. Jendeak berotzen dira praktika zahar horien alde behereko funtzionario ahobero batek erasotzen badie, gure identitatea hunkitzen dutelako erdiz erdi, eta haietaz oroitzen gara bakarrik ezjakin bati erakusteko, ohar dadin zer finki ezagutzen dugun Euskal Herri sakon, sekretu, esoterikoa. Barneko turismo estakuru da kasik. Zuberotarrak berak pastorala ateratzen delarik berrikuntzekin dira obsesionatuak. Denen artean onartua da iduriz meritu handia ukan dutela beren teatro zaharra orain arte atxikiririk, baina ahalke diren edo moderno izan nahi absolutuki, arrotz sendi dukete beren garaiko. Bizirik atxiki nahi bada, hobetu edo oraingotu beharra lehentasuna dateke. Abonatu sei edo zortzi mila pastoralzaleak hondar aleak ote dira noiznahi ihes joateko prest eraikuntza zaharraren zimenduen petik? Ahanzten da ikuskizunak beti hiru oren eta erdi irauten badu, zerbait berri sartzen badugu, erran nahi du beste zerbait kentzen dugula eta menturaz hori zen funtsezkoena. Pastoral honaino ekarri duen elementuren bat.

Prentsaren rola beharko da egun batez sakonki aztertu euskal ausagailuak epaitzen duten moldean. Kritika ez dela gauza ezaguna da eta antzerki jendeen zinkuri aspaldikoa. Baina epaitzen, epaitzen dute halarik ere, eta kazetarien muga-marrak bilatzerakoan, inposatzen zaiguna profesional/amateur dikotomia da. Amateurrea gizarte sailean emateko tentazio handia dute -beste nonbait ikasi kazetaritzaren arabera, erdal hedabideen ereduaren konplexuz edo-, horrek ez baitu arte izena merezi, euskararen zaintzea edo eraikuntza zerbait egiten badute ere.

Iradokia da nonahi antzerki txarra badela, beraz ondoriozta genezake nonbait ona izan daitekeela, baina propagandatik at, ez da ardura errana non. Berriki, Erlea-ren lehenbiziko zenbakian, Harkaitz Canok salatzen du euskal antzerkiaren parodiara jotzeko joera jarraiki hori. Autoestimua falta eta bere buruaren lardaskatzeko ohidura ikusten du horretan, auto-derisio edo umorearen estakuruan. Telebistari hurbil diren esketexez ari dea, edo publiko zabalaren hunkitzeko muntaia herrikoiez? Gauza bera dea funtsean? Herri eta herriko erro beretik datozenez, publiko zabalarentzat pentsatuak diren gauzak ez dira txarrak baizik izaten ahal eskuarki. Ez dut uste nahasketa hori egiten duela Canok, baina anitzen gogoan lo badago antzerki exigente bat, egoerak, politiko eta kulturakoak, diru laguntzek eta manatzaileek bestaldetik ez baitute loratzera uzten.

Aho batez ados baikara antzerki mundu barnetik edo kanpotik, arizale edo behatzaile izan, deitoratzeko euskal antzerkia eskasa dela. Edo dena dela eskas. Publikorik ez da, ohiturarik ez delako, tradiziorik... paradoxa badirudi ere. Publikoa formatu behar da ohitura bil dezan eta ikas dezan gauza horren preziazten. Baldintza oso txarretan lan egiten dute ofiziokoek, ez da horien jakintzarentzat estimurik, administrazioen aurrekontuetarik tiratzen da froga laster. Gertatzen da, ironiarik ez da batere lerro hauetan, zaila dela hemen gaindi euskarazko muntaia duin baten sortzea, produkzioak uzkur dabiltzala errentagarritasuna ahula delako eta sorgin gurpila hasten da inguruka. Ez du ematen artisaun lan hori biziki erakargarria denik, argi, lilura, birtual eta strass garai hauetan jende gutik, non ez den kulturaren behar ascétique-ak bultzaturik, hondartza

du utziko antzoki ilunetara sartzeko, hautsak gure alergiak pizteko arriskuan, irri hipotetiko baten menturan, miserabilismo komunikatibo baten peskizan.

Ez hori bakarrik, baina EHAZEren sortzeak badu solas honekin loturarik. Antzerkia bertso munduari erkatzen bazaio, aise irakurtzen da batek legitimitate handia badaukala euskal jendartean, egiturak, prentsa eta medien mobilizatzeko ahala. Euskaldun guziak, lau urtetarik bederen, aditu hoberenak dira, futboleak bezainbat. Baina gehiagotena: bertsoak euskaldunago dira, nazionalago, bertsolaria gauza bera omen da Zuberotik Trebiñora, BECeke zeremoniak apez edo apezsa hautatzen du herriaren baimenarekin. Badirudi politikariek erakusten edo erakusten ez duten borondate ezaren aitzinean herriak bere teatro sakratuaren bidez bere ordezkaria espontaneo hautatzen duela eta egun batez bederen denak gara ezkertiar eta autogestionatuak. Pariseko Komuna holako zerbait izan behar zen.

Hortik joanez ulertzen da bi gerlen arteko euskaltzain edo oraingo unibertsitate giroko exegeten arazoa. Herri antzerkia da jenagarria. Forma horiek aipatzen direlarik, pastoral maskarada, astolaster, libertimendu, tobera eta karrusa, denak dira ekialdeko gauzak, iparraldekoak ez errateko, geografian mugatuak baina euskal kultura eta hizkuntza egoera auhendagarrian dauzkaten zona azpipopulatueta atxikiak. Argia aldizkarian aspaldiko zutabegileak iparraldeko lehen bertso txapelketari buruz egin kronika, Voyage en Soule, adierazgarria zen alde horretatik. Kanporaketa bat kari deskubritzen zuen Ozkaxetik beheiti jungla bat non ostaturik ere ez baitzen horren errezibitzeko, kadirak testatzen zituen ea jasanen zuenez arratsalde oso batez Urdiñarbeko egurats mindua. Mongolian dagoela dirudi (tenperaturaz ari naiz). Konprenitzen dut, usaian bederen, udako pastoralerako, kultura, politika eta elizako eminentzien gomitatze finezia dute zuberotarrek, hegoaldeko (Urruña?) pentsalariei batzarri egiteko baldintza onetan. Argazkiak har ditzaten berde hoberenean. Baina hor ez zuten zuberotarrek antolatzen... Kolonialismoaren milaka aurpegiak utzirik, hariari lotzeko, argi da albo horretatik atera forma bat ezin dela izan zentroko eredu. Ez da nazionala izaten ahal. Nazionalismoa jakobinismo guzietan zentrotik bazterretara predikatzen baita.

Nahiz eta Lezon sortua izan egilea, aipu berezia merezi du Patri Urkizuren obrak. Liburuz liburu leku garrantzitsua ematen die hark iparraldeko antzerki formei, zuberotarrei are handiagoa. Besteek bezala haria bilatzen dio euskal antzerki historikoari, ez daukan koherentzia bat nahi lioke deskubritu inauterietako fartsetatik abiatuz, Toribio Alzaga, Marcelino Soroaren meandroetan, Jarrairi iturri garbia, *Borracho burladotik* pasatuz beharrez. Sentitzen da Lekuona zaharrak bezala maite dituela herri ekoizpen horiek, ahuleziak barne, frantseskeria zaharkituak gozatzen, baina iraingarria litzateke tema horretaz sentimentalkeria gaizki zahartu bat egitea. Badaki Urkizuk intuizio sendoz forma teatral horietan funtsezkoa den zerbait, gure balizko antzerkiaren zimenduak akaso, xutik ezarriko duguna urre aroa jinen delarik, kausituko dugularik munduko antzerkiaren dantzan ibiltzea gure antzerki propioarekin.

Lapurdumen agertu artikulu batean Marijo Olaziregik zitatzen du dagoeneko ez hain

aipatua den Atxagaren manifestu bat, laurogeiko urteetan jalgia. *Euskal teatro berriaren bila* Krutwigeria edo iparraldefilia h-etan errebindikaturik, hor emana da gure antzerkiaren irakurtzeko bahea. Pastoraletik abiatu eta Stanizlavski, Brecht, Artauden teorien filtrok ikusi. Herritar eta kultura elkarrekin posible baita, herriko eta eskas ez baita gauza bera. Faustin Bentaberri eta ildoan utzi dituen musikariek, Galtxetaburukoek, esaterako, ondo dakiten bezala. Forma zaharrek anitz errateko baitute baldin badakigu zer galdera egin behar zaien. Geroztik manifestuaren bide hori ez da baitezpada mia-tua izan. Telebista antropofagoak jokalaria haragiz elikatzen, urgentiak hemengo gerlekin beti beste nonbait izanki, obra irekia egin da eta Atxagak badauka bestalde zer egin.

Gure antzerkiari jatorri baten atzematea ezinezkoa da. Kanpo eta barneko eragin ugari-aren umea da, euskal sukaldaritzaren sortzearen faktoreak soziologikoak diren bezala, burgesia berri bat disponible baitzen dudarik gabe. Jatorri bati edo besteari lehentasunaren ematea hautu politikoa da. Eta oraingo euskal mundua zentzu zabalean ezker abertzale denez, zentzu zabal-zabalean, antzerkiaren ekaia ez zaigu ontsa heldu, ipar eta hegokoak, eki eta mendebaldekoak bereizten baikaitu. Bertsolaritzak, berriz, biltzen. Beha nola oilartzen garen euskal prentsan iparraldeko bertso txapelketa kari: iparraldekoak bildu gaitu eta hegoaldearekin lotu. Batasuna martxan da. Galdera heretiko bat egitekotz: bai zinez bertso txapelketa horrek Luhusoko saiotik kanpo iparraldeko zalego osoa bildu du? Hainbat gaixto. Erranen dugu hala dela: Donibane Lohizuneko jai alaia betea zen eta kito. Agian aurtengoak egingen du. Hortik ere Bidegain Fauxtoren aitzinean gaizki izatearen arrazoia. Zer da antzerki hori ez abertzaleei hitza ematen baitie? Baitira Iparraldean abertzale ez diren euskaldunak? Euskaldun kontzientziatuen adostasunaren biltzeko, herri antzerkia mundu zaharrari utzi behar zaio. Tobera edo maskarada euskaldunei mintzo zen ekintza baitzen, onak eta gaixtoak denak dira hor euskaldunak. Antzerki militanteak kanpoan ditu gaixtoak, biktimak gara gu. Nonbait kolonizatu antzerkia da. Matalazek berak eskema horretan funtzionatzen du, eta berriki eman Iguzkilorek ere bai. Ez ote da ekialdeko harpeetarik jalgi-rik ere gure proto-antzerkia helduena?

Antzerkia zer da? Entrabaleko arte bat, beste guziak nahasten dituen. Larriki ikusiz, bi definizio bederen mugatzen dute. Lehenari antzokietako definizioa erranen diogu, eta erabilia da gehienetan antzokiak dauden tokietan, hirietan, ttipiak izanik ere. Eta Hegoaldean, hiriak baititu. Iparraldeak kasik batere. Hori zuten hobesten Marcelino Soroak eta Toribio Alzagak, sortuak baitziren antzokiak ziren tokietan. Taulagaina bada, telonak irekitzen direlarik aktoreak deklamatzan du testu idatzia, biziki idatzia, egin ahala hobeki ahoskatuz. Erran nahi baitu gaizki, eta denik ere ez duke arte horrek ahoa bete hots edo Mintzolan egoteko arrazoirik. Bakarretan entzun diot Emil Larre euskaltzainari antzerkilariek egozten duten azantz hori ez dela euskara belarriko, ez dela erraten "ez da" baina "ezta" gaineratekoak gainerateko, entzumena kolpatzen zaiola antzokietan ia beti. Beste definizioa, aldiz, antzerki antropologiarena da. Grotowzkiren lanen inguruan beren burua ezagutzen dutenen eskola da hori. Filiazioa bada Barbaren eta Odin teatreten egin duen lanean. Teatro de los Andeseko Cesar Brie ezpal horretakoa da. Antzerki erraten diote jendearen edozein ikus-entzunezko manifestaziori, erri-

tual edo gorputzen ekoizpen. Banako gure artedraman sartzen da, Eñaut Etxamendi Salbatoren bakarrik euriaren pean kantuz bietan. Para-teatralik ez da, teatrala da dena. Bertsolariak, definizio horrekin, antzezleak dira.

Barbak ongi azaltzen du Italiatik Suediara emigratua zuela, piperrik ez zuelarik ulertzen saiatzen zela jakitera gorputzek esanahia salatzen zuten. Ohartu zen Eskandinaviako keinu kodigoa oso urrun zela Italiakotik eta herri guzietan badutela bere gorputz estetika. Horren irakaskuntza, klaseek irakur bahe bat eskaini ondotik, bidaian oinarritua da eta ohartu behar zaie antzerkilari-gaia tokian tokiko keinu sistemari. Har lezakete pilota edo aizkorarena hemen edo bertsolarien jokoaren beren mikrofonoarekin. Populu guzietan molde bat dute beren baitakoaren kanporatzeko. Baina ez dira transmisio sistemak denak berdinak. Ekialdekoek antzerki deitzen dutenari dantza erran geniezaioke hemen. Hango kantu bat melopea edo garrasi bilakatzen da euskal belarrian pasatu eta.

Definizio hori aintzat hartuz geroz, ohartzen gara maskarada osoa artedrama dela, dantza, kantu edo bertsoak sistema oso baten piezak direla. Bata definitzen dela bestearen arabera. Azeri dantza, banako, ezpata dantza berdin, dantza soltea nolaz ez, akaso batzuk lehen zegoen sistema baten fosilak ditugu, zaharkitzen dira galdu dugulako zentzu ematen zien mintzoa. Eta bertsoentzat, ipuingintzarendako gauza bera balitz? Zuberotarrak ez dira Euskal Herrian hain desberdinak, ezberdintasuna da tesuinguruan ematen dituztela beren dantza eta kantu adierazpideak. Berek hori argi atxiki dute orain arte eta ez dute merezimendu mendrea. Hiztegitik nabaritzen zaie. Rolari kargua erraten diote. Norberarentzat pisuegi den gauza bat denen artean altxatu behar balitz bezala. Dantzari edo kantari bakoitzak berea du jasan behar. Ez da handi edo txiki. Eta hau teatroaren esentzia da bere esanahi gorenean.

Euskal kultura agertu ondotik EKerekin ba omen dagon arazoa ez da, ikusten denez, pertsona problema, basilikan errana izan den bezala, baina definizio ezberdintasuna. Webgunean berean sartzean argi gelditzen dena. Sailkatzen dute antzokietako definizioak aplikatuz. Sortu zutelarik ez zekiten inauteria non kokatu behar zuten, dantza edo antzerki zenez. Animazioetan sartzea ere otu bide zitzaien. Inauteriak bakarretarik direlarik kultur eta politika jendeen biltzeko. Nazionala den gauza bakarretarik. Euskararen ondotik.

2. INAUTERIA GURE ARTEDRAMA (-REN HEREXAK)

Zer eztabaidak euskal antzerkiaren definitzeko mementoan! Euskaraz ari diren taldeak? Euskaraz ere? EKerentzat aski duzu zure talde existentzian euskaraz lan bakarra egina ukaita klubean fitxatua izateko. Kasik aldeko jarrera atxikitzea nahiko, Herri Urratsen ibiltzea, Abertzaleen Batasunaren alde balizko botoaren posibilitatea irekirik uztea... Erdaraz ari izan gabe ezin da profesionalik bizi, beraz, euskaltasuna artetan aritzea baizik ezin da izan. Itzulia den pieza euskal antzerkia bilakatzen da. Erdaraz muntatua delarik jakina. Egia erran, eztabaida honek ez nau hainbeste interesatzen. Ardura gertatzen da topo egitea biziki euskaldun sentitzen den gazte batekin eta fran-

tsesez aldarrikatzen. Xalbador fitoteknian ariko zelarik beti enbeia dut errateko: ongi etorri bascolandera. Nihaturen baitan jakinez bizia pasatuko duela kontradikzio horren konpontzen. Ene gisa.

Itzulia edo ez... Euskal antzerkia egiten du horrek? Ideia jenialak nonahitik ateratzeko eskubidea dugu, atzerritik ere, promenatzera joan bagara edo zerbait gogora jin bazai- gu kanpoko zerbait ikusirik. Ardura gertatzen da preseski irakurtzean. Euskal antzerkia, euskaraz muntatua dena zait. Entseguak dira euskaraz izan behar. Ez printzipioz, baina euskaraz muntatua den lengoaia euskaraz irakurria delako, jokalararen mugiarazteko metafora sistema euskaraz baita. Ehuntzen dugulako euskaraz.

Testuak gaia ekartzen du entseguetara, solasa edo ekaia. Antzerkia poetika bat zait, errealtatearen interpretazioaren proposatzea irudi sistema baten bidez. Entseguetan solas izan diren irudi horiek, irakurgarri badira, behatzailearen gogora igaiten badira, inpaktua bietan azkarrago da eta gozamina berdin. Hau dugu/dut bilatzen antzerkian. Musikara edo arte plastikoetara jo behar da kausitze hori zer den ulertzeko.

Jean Mixel Bedaxagarrek kontatzen zuen behin Izuran eleka egona zela Barkoxeko en- tseinari bikain batekin. Gizon hark bazuen banderaren erabiltzeko molde ohargarria. Bedaxagarrek galde egin zion nola egiten zuen hori eta gizonak: "Bandera ibili behar duk airean arraina urean bezala". Arraina urean bezala erraten da hizkuntza guzietan baina ez du gauza bera erran nahi. Frantsesez *comme un poisson dans l'eau* esapide- ak 'gustura' erran nahi du, gozamina dakar gogora. Garaziko arrantzari buhameek orduak pasatzen zituzten zubietan arrainen urean dilindan egoteko ahal horren azter- tzen. Arrantzaren zailtasun guzia da ur zolara joateko beruna ezarri behar dela harian eta ezarri geroz beita tiratzen du, geldoazten, edo zeharka ibilarazten... arraina ihes igortzen. Urean bezala haztaren kentzea da. Eta hori ulertuz geroz, urrats bat gehiago egiten da Zuberoko dantzan. Dantzari eijerrak azkarrak dira, baina dantzan ez dute indarra erakutsi behar. Frijata "nihuntik" atera behar da, sorpresa da, gertakaria. Satan edo gatuzain batek hori duelarik emozio gaitza sortzen du deus erran gabe.

Gauza horiek normalean ez dira esplikatzen. Enpirismoz lortuak dira aritzearen bortxaz, Machiavellen geziaren botatzea bezala, arkulariek geziz gezi ikasia. Filosofia baten umeak dira eta dantzarien arteko euskarazko solas luzez. Funtzionatzen dute euskara- ren memoriaren barnean.

Itzulpen, jatorrizko antzerki denetz, orain bigarren mailako arazoa zait euskal antzerkia izateko. Iparraldean film errealistarik ezin da egin osoki euskaraz. Euskara anitz erabi- lia bada ere orain arte, diglosia denetan da, estigmata (stigmatate soziologian euskaldu- nek bere burua harrikatzeko joera adibidez) gehiago, borondate txarra eta utzikeria orokortua. Euskaldun berriek erraten dutelarik euskararen ikastea zaila dela, uste dut ez dela ikastea bera zaila, neke da jakitea noiz behar den edo aizu den baliatzea eta noiz ez. Orduan ikuskizuna oren bat eta berrogei minutu euskaraz? Denak beha gaude frantsesera noiz lerratuko den. Manuelarekin begi bistakoa zitzaidan agertu hori.

Argentinan pasatuko zen ekintza, euskaldunak bazeuden eta gautxoak; beraz, solas parte handi batean espainolez behar zen eta, beharbada, mintzaira indigenetan. Fikzioa bera zen beraz jokoan. Euskal antzerkian atxikitzen dugun desafioa hau da: ez den mundu bat sortzea non harreman guziak euskaraz lirategen. Elementuak behar dira han eta hemen ereinak, jokoan beraz, amuak egiatasun hori fabrikatzen dutenak, euskaraz izate hori posible egiten baitute. Horien faltak ematen die batzuetan antzerki itzuliei arrotz kutsu.

Bi orduko antzezlan baten lehen filajak (antzerki guzia lehen aldikoz segidan emateak) egun bat baino gehiago iraun dezake. Horrek salatzen du antzerki lan batek iceberga-rekin duen antza. Lan hori guzia sinetsarazteko pertsonaiak hor erraten duena une horretan pentsatzen duela, bat-batekotasunaren ilusioaren sortzeko. Ilusio hori ematen ahal diote entseguek itzulpen bati.

Larzabal da dudarik gabe iparraldean kausipen herrikoi sakonena erdietsi duen euskal autorea orain arte. Erreferentziak arras iraganak dituzten piezak oraino emanak dira betiko arrakasta berarekin, aktoreak ardura eskasak direlarik. Adibide argiena Herriko bozak antzertia da. Xarritoni entzun diot Koldo Mitxelenak Larzabalen euskara zabarra atzematen zuela. Landartek dio ez zuela batere bere idazkera zaintzen: hiru lerrotan atzeman daitezkeela egin, egiten eta egite. Baina mintzatzean ez dutea hiztun hobere-
renek holakorik egiten? Peixotok zioen, hark ukan baitu Larzabalen idazten ikusteko pribilegioa, harrigarria zela horren idazten ikustea: izkiriartzen zuela sekulako azantzaren erdian batzuetan, sukaldea jendez betea, eta sekula ez zuela berriz irakurtzen, ez ezabatzen, arrakopiatzen izan balu bezala. Horrek surrealisten idazte automatikoari pentsarazten dit. Baina gauza batez segur nago: pertsonaiak entzuten zituen mintzaten, eszena ikusten zuen eta transkribatzen zuen jende fabrikatu, asmatu, idealizatu horien ahozko euskara.

Ikerketa zehatza bada egiteko Landart eta Larzabalen antzerki idazte moldeen ezberdintasun erradikalaz. Euskal literatura liburuetan, antzerkiari buruzko pensum zatiño horietan, pasarte zerbait ageri da beti iparraldeko antzerki modernoari buruz, goian aipatzen genuen herri literaturari buruzkoa eliminatu eta. Aipamen horietan Landart eta Larzabal bat balira bezala agertzen dira lerro berean eta parentesia beren artean. Bi horien antzerkiak jatorri eta barne zain hagitz ezberdina dituelarik. Hori aipatuko dut zehazkiago beste nonbait, baina gauzak argi uzteko, bi gauza: Larzabal mugaz muga idazten ari nintzelarik Emil Larreren ikusten izan nintzen, Urruñan bikario egon zelako herri hartan antzerkia azkar zelarik eta, bistan dena, orduan Larzabal ontsa ezagutu zuen. Larrek irriz kontatu zidan: "Bazian irudimen bat! Behin ez zekiat zer karietarat baina egin zitean herriko plazan ikuskizun bat, kontrabandista istorio eta sarrarazi zituen 15 gazte bedera abarrarekin. Oihana zian hura!". Antzerkiaren alde sinbolikoa du deskribatzen hor, iradokitzea erakustearen orde eta metonimia irudietan ezartzea. "Espazio hutsean agertzea, luzitzea eta desagertzea" nolana ere, zuzendari bakoitzak bere hiztegia baitu. Beste batek oihal tindatu bat ezarriko zuen gibelean errealistago egiteko. Beste gauza ere badu Larzabalek Landarten antzerkian sekula iku-

siko ez dena. Ibañetan, adibidez, Frankoak gazteluan dira eta etxeko andereak lurrean estekatuak dituzte. Bilatzen duten iheslaria hor gaindi izan daitekeenez, neskak minztarazi nahi dituzte. 1969 da, Franco tente. Tortura da erakutsi behar. Deusek ez du antzerkian torturaren indarra erakusten ahal. Satorbeltzek neskak lastoz estaltzen ditu eta zuzia hurbilarazten. Antzerki memento fenomenala da orain nehor gutik ikusten ez duena. Emanan izan zen garaian bihirik ez zen salan urde hiltzea ikusi ez zuenik, baño ere ez memento horretan bilo errearen usain hori jargira heltzen ez zitzaionik. Hor antzerkian egiten ahal ez dena egiten du, urrina konbokatzen torturaren errateko. Garaian berri-berriak ziren gogoetan oraino Poloniako esparruetan deskubritu aberekeriak eta humanitatearen kontrako krimenaren nozioa. Franko/frankistak nazien lerroan sartzen ditu. Deus erran gabe eta denen indar memoriala baliatuz. Metafora soil eta baserritar horren gibelean antzerkiaren maila gorena hunkitzen da.

Konbentzitua naiz gure dantzariak antzezleak direla, dantza honaino ekarri antzerki sisteman. Idatzia dut jada maskaradaz maskarada Pitxu ezberdinak molde berean urrats jauzkari berezi horrekin kurritzen ikusirik bilatzen nuela niharen baitan "zer eskar-niatzen du?". Ur gaineko lipu arraunlariak, erreka karramarroak? Ur mamuetan neuzkan modelo posibleenak. Urbeltzen liburuek baieztatu zidaten hipotesia. Harentzat Pitxu eulitxa da. Uda astirietan urari so egon denak gogoan ukanen du errekatik ateratzen diren eulitxen hegaldai eskola. Iduriz ahul eta indarge diren marmutxak paradoxalki biziki gaizto eta iraunkorrak, espontaneoki ugaltzen...

Funtsezkoa da metafora joko hori euskaraz irakurria izan dadin, kontrazentzu gaitzak egin daitezkeelako beste gisan. Xarles Bidegainen aipatu zaigun müts hitzaren esplikatzeko xinaurrien lana alfer lana dela euskaraz, erleena berriz baliosa. Frantsesez travail de fourmi eskergarria delarik. Metaforen jokoak gainera beti birpausatzen du antzerki onaren funtsa: ez da ikuskizun soil, axal distiratsu hori baino gehiago da, komunikazioa dela oroitarazten du, igorle/hartzaile harremana gogoan datxekiola. Nork egiten duen eta norendako. Transposatzen dugularik, egia dugu galtzen. Ardura entzun dugu iparralde honetan ipuin kontalari profesional bat negarrez frantsesezko emanaldietan baizik ez duela jenderik eta euskaldunek esker guti diotela beren kulturari edo haren arteari. Kanpoan ari delarik, lamina frantsesez aipatzen, behere hartako behatzaileek sinesten dute Euskal Herri arraro hartan, marja hartan, laminak egon daitezkeela, edo hasteko euskaldun borono haiek sinesten dutela oraino korrigan, troll edo lutinetan. Ez baitira biziki jalgiak. Eta funtziona dezake. Euskal Herrian, aldiz, nehork ez lezake sinets lamina ikusi duela barda. Kontaketak berak lehengo denboretara eramaten gaitu. Egia, antzerkiaren izate den oraingotasuna airatzen da. Trabesik ez da gehiago, urgentziarik. Eta ipuinak porrot egiten du eta publikoa urtez urte turrintzen. Elebitasuna ez da gaizki berez, baina kontalari famatuaren plagiatzeko Olentzerori euskaraz eta beste eskuz Papa Noeli frantsesez ari izan diren guziak efikazitatara isurtzen ikusi ditugu denak orain arte. Denborak bere inertzia dauka, eta bizia joana dela ohar-tzen gara Coca-Cola edan dugula apairu guziz. Ulertzen dut bera deklaratu ekologista batentzat gogor izan daitekeela, baina ez dira euskaran egon amateurrak haren hautuen erantzule.

Aurrerapenaren prozesuan kokatzeko, gu baino zozoagoaren atzemateko beharra, alboen funtzioa da. Biarnesek kontatzen dituzten histoire basque horietan ateratzen da garbi. Ez naute sobera arranguraten, euskaldunek holakorik ez kontatzeak salatzen du Biarnorik ez dela. Midik integratu ditu. Kezkagarriago da euskaldunek berek kontatzen dituztela moderno izateko autoderisioaren estakuruan. Euskaldunak ez omen dira biziki irekiak eta sexu mailan uzkurak. Ideia hori zabaltzen da denetan. Baina egia dea? Eni iruditzen zait espainolek pentsatu Vaya semanita eta gisako gauza arrakastatsuak ditugula inkontzienteki itzultzen gure bizkar metatu arrakasta horren parte baten biltzeko. (Hemengoek eginak badira ere, espainolez pentsatuak dira, espainola da emaitza). Arazoa da gu kanpokoek gutaz errana hasten garela sinesten eta izaten edo ginena ez izaten klixe horretaz baztertzeko.

Gure artedramaren irakurtzen hasten bagara metafora horien mataza askatuz, irakurtzen badugu ez-erran horren errana, etnologoen sailkapenak gainditzen dira laster. Beltz eta gorri afera bat dea maskarada? Zamaltzaina betidanik gorria izan da? Egia dea rola onak eta txarrak badirela edo goi mailakoak eta apalekoak? Begira zuberotarrak maskaradari beha. Zamaltzain handiak biziki txalotuak dira, baina ez ote da kabana igurikatuen? Ni izugarri hunkitu nau betidanik xorrotx pareta ezteran jartzen delarik, boz zoliak altxatzen direlarik berantegi hasi den maskarada horren astirian zer batasun egiten den memento horretan. Isiltasuna elizakoa da eta ezinago hobeki akordatzen diren boz fin horiek errepikatzen dute errimaz errima Zuberoa, haize guziak kontra ukanik ere, hor dagola eta irauenen. Otoitza baino azkarrago zait, baina sustut, izate batean fedea. Alta beltzak dira. Baina orain arte dantza eta hitzaren lehia horren arte-tik kobla kantatzen ari izan diren beltzak. Koblariaren pertsonaia. Hitza menperatzen duena eta ahoz doitzen: jendea beraz eta jendeentzat eredu.

Maskaradek eta Baxenabarreko libertimenduek gauza bera erraten dute, artedrama bera da nahiz eta estetikaz ezberdinak izan. Zuberotarra konplexuagoa da, zehatzagoa, kodetuagoa, antzerkiago erran nezake, baina libertimendua irakurterazagoa, eta horri lotuko gatzazkio gure artedramaren oinarrien aztertzeko.

3. GURE ARTEDRAMA: LEHIA ETA BATASUNEAN JARRIA

Zuri eta gorriak presente badira libertimenduko kabalkadan, begi arrotzak bereiziko ditu zuri apainez dauden dantzariak, beltzez diren musikari eta bertsolariak, eta gibele-tik ahal duten bezala baina nagusiki kolore ilunez dabilzan zirtzilak. Dantzariak dira antolatzaile eta soinuari manatzen. Soinuak baitu neurkada ematen hor: dantza noiz hasiko den eta noiz geldituko, isilduz zirtzilei plaza uzten eta berriz hastean haizatzen. Bertsolariak ez dira besteei nahasten, neutro daude, ez dira zirkuluan sartzen, musikar-ien larderiaz dira kantuz ari. Dantzaren eta bertsoen arteko harreman hori funtsezkoa zait Iparraldeko kultura sistemaren ulertzeko, baita ere azken mendean agertu diren eskasak edo egin hautu makurren ondorioak.

Soinulariek txirula jo egiten zuten lehen, orain ere Zuberoan. Fauxtin Bentaberrik arra-

bita utzita kobreak ditu sartu. Aldaketa hori ez da estetikoa bakarrik, funtzionala ere bada. Libertimendua inauteria denez, badu ero aire bat. Pieza horiek ez daitezke nahas besta berri edo holako elizkizunekin. Arriola saxofonista garaztarrak dio badela jauzien swing bat. Berriki arte soinuak ekartzen zuen sorpresa ahantzi da gaur egun, kont-bentzionala balitz bezala, baina kontuan hartu behar da jauziak betetzen zituztela.??? Mixel Aurnaguek erraten du ez zutela sekulan berdin jotzen. Libertimendua ez da ikuskizuna. Lehian dira egiten duten osagaiak eta musikariak barne. Dantza sukalde eta ezkaratzetan kantatuz transmititua zelarik, aipatuak eta berraipatuak ziren musikariak, Turrut, Arrozagarai, Fauxtin handia... Orain ere emozio bizia sentitzen dut ikusten ditudalarik autorik jausten Xabi Setoain eta Juan Miguel Kiteria luzaidarrak, Galtxetaburu gamartearra, Uztaritze aldetik beste haxe bat kobre autoko kofretatik eta mutxiko band hori osatzen. Gorriek anaban oihukatzen dutelarik hasten da lehia. Talde bakoitzak bestearen harritzeko beharra du. Zirtzilek miretsi behar dituzte dantzariak eta bazterrak harritu denbora berean.

Bertsolariek duten rola katarsiaren gainean oinarritzen den teatro horretan epaile funtzioa da. Angel Aintziburuk erran zuen Garazin pena zela bertsolariek xamarra ez zutelako janzten. Folklorekeria ez zaio: xamarra beltza zela eta hori epailearen kolorea. Larramendiren denboratik egia da bertsolariak orekatu behar dituela zirtzilen gehiegikeriak, helburua ez delako no future aldarrikatzea, baina jendarte horren purgatzea. Bestalde ardura,?? zirtzil motelen ondotik bertsolariak hitza hartzen du, hots salatzearen beharra bere gain.

Baxenabarreko dantzariak egin ahala (ahalik eta batasun handiengan) bat izan behar dute elkarrekin lan egiteko ahala da hor erakusten. Premiazkoa zen, lehen ekonomia horretan jarria baitzen. Berriz beharra bilakatzen da lotura soziala desegiten den aro honetan. Zirtzilek bere artean lehian ari izan behar dute, zilegitasunik gabeko legea nekez onartzen dute, berena defendatu behar besteek gaina har ez diezaieten, hainbatetan entzun ditugunak dira, ados jartzen dira goiz edo berant beren gremioaren alde.

Bertsolariak ezin du bakarrik kantatu. Ofiziolako bertsogintzaren dialektikak permititzen du libertimenduaren goizean oraino ez zen egiaren bertsoz bertso osatzea. Hitzak pentsaera aitzintzen du. Elizak zazpi eginahalak egin ditu mendeetan euskal jendartetik artedrama horren idokitzeko. Herriko bestak eta besta berri antolatu ditu horien hondarrekin inaute garai tzar horren errotik kentzeko. Gaineratik eta erretorikaz inposatu egia batek ezin zuen jasan bere ondoan solastatuz eta dialektikan sortzen zuen beste egia bat. Bat-bateko bertsolaritza kendu eta Escualdunac kazetak behar diren bezalako bertso idatziak publikatu ditu.

Izpiritu bat ateratzen da bestatik. Baina beha euskal ausagailu guziak. Bertsolari aldizkariak erronomia zaharrei buruzko ale bat argiarazi zuen, Patxi Iraola, Joxe Agirre eta gisakoak elkarriketatuz beren gazte denborako gauzez. Trikia, pilota, mendia, herri kirol desafioak, bertsoak, dantza nahas-mahas jalgitzen ziren oroitzapenetik zentralismoari buru egiteko axut bezala. Ez da arras oraingo gaia, baina galderak balio du: egin

daiteke arte ofizial bat beti alter funtzioa ukan duen batekin? Tapia entzuten delarik tritixia jotzen Karlistaldien bertsoen kantatzen, beste Euskal Herri batekin egiten da topo, axalezkoa baino konplexuagoa, on eta gaixtoen fabulatik urrun, salbai onen eskema ukatzen duena. Izateko beti lehian izan diren batzuen istorioa. Horien artedramak ez lezake besterik erran..

Gure artedramaren gremioen arteko biktima naiz nihaur: beti gogoan dut Luzaiden Atxo eta Tupin ikusi nituelarik lehentze eta euskaraz funtzionatzen zuten orduko azken kabalkadek sortzen zuten herriko boz sentimendu hori. Publiko bat ezin osatuz ari zirelarik orduko dantza taldeak, herrietan kabalkadak zahar, gazte eta haurrak biltzen zituen problemarik gabe, beztituak akitzen zirelarik zirkulura sartzen ziren zaharrak lehiaren iraurarazteko. Antzerki hori da enea eta hori nuke nahi transmititu.

Libertimendu bukaeran zirtzilak haizatzen dituzte bolantek, ostatuan kantatzeko xorrotxen jantzia uzten da. Badoaz, oroitarazten digute ibiltariak direla. Kanpo bat badu herriak. Egonkor positibo/nomada negatibo sailkapen karikaturala ezbaian jar daiteke. Bertsolaria eskuarki ez da bertakoa, musikari hoberenak frantsesak zirela erran zidan Luzaideko dendariak. Komunitarismoak buhameen hats eta hitza beharrezkoa du purgatzeko; irauteko, berriz, mintzatzeko askatasunak bertsolariaren erran neurtu eta landua eskatzen du. Herriko ahobero bat aski bada zirtzil izateko, hizkuntza distantziatuak ekartzen digu zer pentsa. Bedaxagarrek maskaradak honela esplikatzen ditu: etxaldean segida obsesioa zelarik, ezkontza trabes nagusia, herrien arteko trukaketa mugitze guti zuten sozietateen arazo nagusia zen. Neolitikotik hona edo azken denbora arte hola zen. Ibiltaria ez da etsaia, nahi dugun kodean ibiltzen bada. Botere politikoa ez bada joaten. Hori kolonizazioa deitzen baita.

Dantzaria, bere artean sinesten badu behintzat, mutua da. Baina testuinguru batean, kode batean dantzatzen du. Hitza beharrezkoa du ondoan gure sistema zaharrean. Ez naiz tradizioaz ari. Edo tradizioa promozionatu nahi. Esplikazio bat eman nahi diet beren ikuskizunetan jenderik ez dela pleinitzen direnei. Hitza behar dute ondoan dantzariak. Biziki preziatua bada ere dantza Euskal Herri honetan, sendi dezakete protagonismoa ebatsia zaiela kontestualizatze lan guzia egin dutelarik maisu zaharrek, satan hezle eta jauzi kantariak. Oroit naiz Oñatiko dantza erakusle baten oihu mindua Berriako artikulu batean sorkuntzaren moda horren orokortzea ezin ulertuz: "Zer egin behar dugu dantza zaharrarekin?". Segitu. Eten gabe dena horretan baita. Gure sozietatea osorik atxikitzen duena da eta. Eta oroitu bertsozale ez den dantzaria ez dela euskal dantzaria. Bere alter egoa duelako euskal artedraman. Esperientzia guziak aizu badira, koregrafo berriak ez dira harritu behar jendeak dudarekin hartzen badu mintzo den dantzaria.

Gure ikuskizun zaharra ez da errebista, dialektika baizik, piezak mintzo zaizkie elkarri. Baño ahanzten bada, bestea dago maingu. Bertsolariak bakarrik egonen direlarik dena eginen dute? Hizkuntza transmitituko deno, honekin batean munduaren irakurtzeko moldea da sartuko gure muinetan. Bertsolaria hitzak errepresentazio mentala sortzen du. Definizioa dauka gure baitan. Imajinatzen dugua ziminoarena egiten duen bertso-

laria, dantzan ari dena? Edo antzezten ote dutea jadanik bertsotan ari direlarik? Ez ote dira bertsolari rolean? Urepelera joatea aski da, bi solas egitea ohartzeko Xalbador herritarra eta Xalbador bertsolaria ez zirela beti bat. Bertso kantatzera zihoalarik hartzen zuen bertsolari kargua: hotz, idor eta euskaltasunaren betiko izatetik jalgitzen zen boz distantziatu hura hasten zen airatzen. Mattinen irriari kontrapuntua ematen zuen egia bila zezaten entzuleek, haien arteko dialektikan. Ez da kasualitatea egundainoko aldaketak jasan dituen iparraldean beharra sentitu badu Odolaren mintzoaren idazteko, bertsopaperekin idazteko bardoaren bozaren entzunarazteko. Bakarkako bertsolaritzaren funtsa hor da, eta Etxahun Barkoxeren koplak datozkit gogora, Katxo eta Mendiagenak halaber. Kantatuak dira begiak begietan gure izatea arriskuan ezartzen dituenari. Mementoak badira non ez den gehiago gibelera egiten ahal. Maialen Lujanbio Bergaran.

4. BERTSOLARIA AKTORE

Artedramaren piezak askatzen ahal direa? Baietz, dudarik gabe. Libertatea edozein esplorazio eta sorkuntzaren baldintza da. Baina inpassa batean garelarik artedrama hori izan behar da gibelera jiteko, bestenez folklorizazioa horra (heldu da?)da. Euskal dantza mehatxatzen baitu erregulariki. Xorrotzek oroitarazten dute bertsolaria zer zen Zuberotan, aski zaila delarik beste modelo baten inposatzea. Entzuten da erregulariki bertsolari gazteei “ea bertsozaleak sortzen ditugun” Zer erran nahi dute? Txapelketetako sartzeak lortzea? Zeren zaleak baitira euskaldunak diren ber, bertsolariek dituzte ez mugiarazten zerbait falta zaielako.

Euskal Herriko bertsolari guzietan funtzio bera osatzen dute ororen buru. Eske santu edo santibate izan, gauaz etxez etxe joatea, adibidez, Euskal Herri osoko praktika da. Nazionala. Esku argiek giro bera sortzen dute eta atenzione bera leitzen dugu kantarien soan, batzarri egileak dira bertsozalegai urtean behin. Baina kasu eman diezaiogun gauza bati: ikuskizunean aktore bat edo bi dira publiko handi batentzat, eske egoera horretan bisitari anitz, artedrama hori ematen da etxeko andere bakar batentzat batzuetan. Betiko markatzen zuen ikustatea.

Bertsoei interesatzen hasi nintzelarik, Ezponda eta Alkat anitz ari ziren plazaz plaza garai hartan, zerbait berezi atzematen nion baldintza berezi batzuetan Ezpondari. Ez dut erraten hobe zela, Xalbadorrek baino bertso hobeak kantatzen zituela, adibidez. Kantatzeko maneran zen. Oso bertsozale diren hemengoei aipatu nielarik baieztatu zidaten inpresio hori, Ezpondak bazuela “beste zerbait”. Aski zitzaigun teoriaren formulatzeko, Amuriza jaun eta jabe zen garai hartan, hemengo eta hango bertsolariek ez dutela helburu artistiko bera, errima aberatsak eta Xenpelar eta Otañoren ereduak ez zuela indar bera hemen, karlistek utzi bertsopaperek eragin segurra ukanik ere. Xorrotzek beharrezkoa duten ongi kantatze horrek munta handia du. Erraten da Oztibarren edo Garazin boz ederrak badirela bertsolari “arrazako” familietan. Etxamendik berak kobleri anitz zituen jendakian, Johnny Curutchet ateratzen den Basansagarre lur hartakoak preseski.

Baina zer da ontsa kantatzea? Entzun dezagun Curutchet Ameriketako “pastoral” batean bertsoa norbaiti zerbitzatzeko molde kasik eztiz, sekular boza atera gabe. Gipuzkoako molde bat definitzen ahal dea Azpeitiarrak entzunez, Lizasotarra badea, adibidez? Hemen zahar bati eskatzen diogularik “kantu hori nola da?” bertso guziak kantatzen ditu boza atera gabe. Eta jende bat baino gehiago delarik orroaz hasten da, apuñatik, erraten den bezala. Kantu xaharretan ari garelarik, lehia orduan bertso guzien ematea da eta bozen iraunaraztea goratik ariz. Ez dira hauek ikertzeko pistak baizik, baina hauei kasu eman gabe Iparraldeak ez du berriz bere Katxo ezagutuko. Intuzio hori ukan ote dutea *Bertsularien Lagunak* elkartekoek aurtengo txapelketako leloaren hautatzean?

Memoria bardoaren rola da ahozko zibilizazio guzietan. Ezpondaren grazia istorio kontan ez da hainbeste txistean berean, ezagutzen dugu ardura, baina kontatzeko maneran, erran zaharrak, errateko moldeak, esapideak eta Larzabalek hain gogoko zituen metafora erroto horien harira konbokatzean alegia deus ere. Natural balitz bezala. Oihartzun hori funtsezkoa da. Ez dira bertso guziak berdin bertso, ez du errimen kalitateak, neurriaren xuxentasunak egiten oroitzen diren bertsoak direla batzuk, baina orain aipatzen dudana nahasketa hori tradizio eta berrikuntza dosatze, denek partekatzen dugun erreferentzia komun horretan sortzea, hizkuntzaren memoriatik aritzea. Eta oraingotzeaz. Txapelketak ez du hori kontuan hartzen eta ezin du, ez da hasiko erraten hau bertsoago da. Baina txapelketa bukatzen delarik esplikatu dezake bertsolari batzuk ez hain zale horiei kausitzea dutela eta hobeki sailkatuak ez.

Ezpondarekin gaude. Hau bolanta, dantzaria zen libertimendu batean, Xalbador zena jin zen bertso kantatza eta Mattin ez zen agertuko eri zelako. Lehen bertsoan kantatu zuen ea norbait bazen hor erreferaren emateko. Ezponda iganarazi zuten taula gainera. Bakarkako bertsolaritza gailur batean eraman zuenak ez zuen kantatzen ahal libertimenduan bakarrik. Bakarkako lanaren muga salatzen du, baina Ezponda definitzen du ere. Artedramatik jalgi bertsolaria da eta hortik horren parametro guzien menperatzea. Bertsulariek osatzen dute elkar eta bertsolari handiak bestea handitzen. Balio luke ikustea txapelketa handia lehentze egin duten muskil gazteek sekula ibilaldi ona egin badute, ikustea nioen, zer gai ukan duten eta norekin artera diren ofizioetan. Ohar gintezke xantza handia ukan dutela zorteak laguna eskaini dielarik.

Emozioak aise gaindikutzen nau beharbada, baina idealizatzea hastio dut. Artedramaren giltzarria da bertsolaria, eta aipatu behar dira errekaraz uzkaile diren libertimendu eta karrusa guziak. Auzi eta herra zikin, zuritze publiko jasanezinak, dantzari txarrak eta futitua, esplikazio bat baino gehiago bada herri ekimen horien ahultzean, eta ez dira denak eliza eta beste etsaien gainean ezartzen ahal. Gerlek han berean atxiki dituzte arizale hoberenak ardura, baina bereziki piezen arteko oreka ez baitzen idatzia, teoria ez zelako formulatua, desorekak herrian ernegua du sortu eta, ondorioz, interes eskasa. Ahozko mintzairan erraztasunaren galtzeak erantzukizun handia du zirtzilen desagertzean. Eta gero bertsolari eta dantzariak hasten dira zirtzilen egiten. Sistema zaharrean

erregistro guziak hor ziren, hitz gordina eta landua, estetika zaindua nola basa.

Jada aipatua dut, azken gerlen ondotik Euskal Herriak jasan ditu hiltzen ahal zuten aldaketak. Sinetsi nahi dut tzarrena gibelean dela. Baina bertsolari kontzientzia zute- nek beren rola ikusi dute horretan aldatzen eta trabes berriari egokitu. Ligueix egon bada bertsolari exodoa salatuz, Etxahun Iruri kantu egile egin da. Exodoaren bardoa izan da, hain xuxen. Paueko, Parisko euskaldunak Gernikako arbolaren hosto atxiki nahi izan ditu edo Oriko txori, gutxienez, aldaketak baikortasunez hartuz. Xalbador berriz bere mugako kulturatik euskararen kontzientzia egon da eta zerbait erein du dantzari gazteen gogoan, hauek uste baitzuten ez aspaldi eta oraino ere, dantza egin zitekeela euskal elerik gabe.

Orain txapelketa eskatzen zaio bertsolariari. Futbola edo errugbia bezain zaratatsu den kirol baten osatzea. Bertsolariak utzi behar du alter kultura maltzur hura, ttipien, lose- rren boza, gauezko bertso eskaini eta zizelkatuak, izate publiko erraldoiaren asumitze- ko, anfiteatroan luzitzeko. Heroi berri bat bezala. Edozein gairi erantzun ematen, eus- kararen birtuosoak dira, telebistarako joko ematen dute sekuentzia batzuek edo hiz- kuntza-zirku bat. Jendea euskaldun sentitzen omen da BECen. Dudarik gabe behar dute lau urtetarik euskaldun sentitu. Larzabal berriz ere: Euskaltzaindira sartu zelarik erran zuen: hemen normalean jendeek beren burasoak eskertzen dituzte euskaldun egin dituztelako. Nik ez ditut eskertuko, ez zidaten euskara baizik erakusten ahal, ez zekiten besterik.

Zirkulua hets dadin beraz. Larzabalen antzerki famatuenetan rol famatuenak bertsola- riak dira. Matalas, Berterretx, Bordaxuri... irakur testua eta erran zer ekintza ikusten die- zun burutzen pertsonai horiei. Deus ez. Ez dira mugitzen ere: hitz garbi eta paregabea ateratzen dute errimatuz ere ardura, Bordaxuri eta Matalasen kasuan. Eta parean duten etsaiak berdin. Erantzuna bertso moduan ematen dute Katxok eta apezpikuak. Joko mota hori, ongi aritzea da Iparraldeko publiko formatu batentzat. Kasik ez antzeztea da, joko minimalista, eta barne joko kasik espresionista. Boz eder eta bero batek lagun- durik. Komeditan, berriz, rol handia zirtzila da, Pako, esaterako, Herriko bozetan. Eta paper horretan herriko ziminoa ezartzen da.

Hala-hala taula ganean eta antzokietan ikusten ditugun bertsolari horiek ezagutzen ditu- gua? Hobeki errateko, nork ezagutzen zuen Xalbador, nork Iturriaga? Nor dugu parean: Colina bertsolaria edo pertsona. Begira funtzionatzen duten bikoteetan nola osatzen diren rolak, nola banatzen diren deus erran gabe? Basarri eta Uztapide, Elortza eta Iturriaga; Egaña eta Sarasua, ez Lizaso. Ez dutea clown karguen banatzeari pentsarazten?

Txapelketak merituak baditu, bere luzetasunean dago bat, eta finalean are gehiago. Aitzineko finalean biziki gustatu zitzaidan nola Iturriaga pasatu zen bad boy roletik txapeldun posibilera, gurutzatu baitzituen bere pertsonalitate ezkutua hunkitzen zuten gaiak. Aurten, oroitzen diren bertsoak aipatzen baitira, izugarri maitatu nuen Unai Miren Amurizarekin egin zuena, gaia minbizia ukan zuen emaztea ganbaran biluzten

zelarik. Maitatu baino gehiago da. Sekula puntuz neurtuko ez den delikatezia infinitu hura, gaiari metafora eskaintzen eta entzuten dugu harriturik horren parean indartzen, zohitzen, bertsolari bilakatzen neska boz hori, memorian daukagun boz alaba bat balitz bezala, gogora ekartzen baitigu bertsozale egin gaituen zerbait. Uste dut erran dudana ilustratzen duela adibide horrek. Errana, pertsonaia, rolak, artedrama. Pertsona eta pertsonaia, sinetsi nahi ditugun egiak eta beharrezkoak zaizkigunak. Ez dugu bertsolaria ezagutzen, baina bertsolari publikoa; beti hola izan da eta izanen, agian ez ditugu bertsolariak telerealitatean agerraraziko.

1977an Garaziko lagunekin Lanbararat joan ginen Zuberoko dantzen ikasteko xedez. Hainbat eta hainbat aitzindari formatu zituen Erramun Tartaxu maisuaren ezagutzeko parada ukan genuen. Irudi azkarrak eta anekdota gehiago oraino gogoan atxikitzen ditut garai hartaz. Xantza handia izan zen, pastoral eta maskaradatik landa nituen galdera nahasiak norbait egiten ahal bainizkion. Egia errateko, aski atsekabetzen ninduen ardura. Gazte nintzen oso eta uste nuen gauza guzietan esplikazio bat zeukatela. Erramunek bere mundua bizi zuen, ez zuen esplikatu. Gertatu zait ardura maskaradan harekin batean gelditzea eta hari begiratzea maskaradari so zegoelarik. So eta irriño hura ezagutzen dut orain ardura beste batzuen begitartean.

Oroituko naiz beti hara joan ginen lehen aldia. Jarri ginen, kafea eta rona ukan, bazekiten etxe hartan jendeen karesatzen. Ahalke zerbait sendi dut horren aipatzean, zerbait salatzen banu bezala. Omenaldiak ez ditut maite, beti norbait ahanzten dute eta Erramunen emaztea dut gogoan orain. Haren etxean ginen eta dantzarigaien etxea zen. Lehen egun hartan musika baten bilatzen hasi zen bandekilako mañetofona batean, eta nekez kalatzen baitzitzaion, kantu bat atzeman. Hor gogoa kantuan jarri zitzaion eta egin zigun: zuek manexak baitzirezte behar duzue hau jakin. Kafea berriz hartu genuen eta kantuz ari izan. Nihauren baitan egiten nuen: agian ez da beti hola izanen. Denbora galtzen genuela iduri zitzaidan, denbora frijaten lantzeko zen. Ez nuen besterik ikusten Zuberoko dantzan. Frijat doble madarikatu horiek. Anitz nuen ikasteko eta dolu dut ordu zeno ikasi ez dudana guzia.

Euskal Kultura liburuaren azken orrialdeetan egiazko proposamena bazen. Arte ezberdinak edo, hobeki errateko, artedramaren piezak ondoan landu behar dira. Ene ustez. Gurutzatu behar dira eta denen bistan landu. Orduan dira gauzak berriz lotuko eta ulertuko. Gazteek ez dezaten pentsa denbora galtzen dutela funtsezkoa erraten delarik. Ez da Euskal Kultura entzuna izan, hemen kultura eragileak ez baitira formazio horretakoak. Beste artedrama batean haziak izan dira, eta horretan ez dira ideiak trukatzen, mintzo da bat eta besteek amen erraten. Maite Barnetxe omendu zuten aski berriki, eta karia horretara mintzatu zen telebistan iparraldeko euskal etxe guzietan ikusten den kazetako editorialgile bat. Kazetari zenaren kalifikatzeko oso irekia zela erran zuen "ez zuen orain ikusten den izpiritu hetsi hori". Ez dakit nortaz ari zen baina irri egiteko enbeia ukan nuen, horren kazeta irakurtzean gauza bera pentsatzen baitut. EKEko biltzar nagusian denak aho batez alde bozkatzeko dutelarik ulertzen dut prefeta kontent izan dadin irekidura horretaz.

Urkizu eta Atxagarekin ados naiz artedrama dela transmititu behar sorkuntza guziak posible izan daitezen eta sortzaileak higa erreferentziak ulertzen dituzten behatzaile batzuen aitzinean. Euskal antzerkia tratatzen duen kapitulua irakurtzen dugularik, iduri zait idazle bakoitza Sisiforen gisa beti zolatik hasi dela antzerki bat gure herriari eman nahiz.

Testu hau ez da sekula itzulia izanen.